

KRISTAU ESKOLAK SOLDATARIK GABEKO, ATZERAP AUSUAK DITUEN ETA GREBA AMAIERAKO AKORDIOAN JASOTAKOA BETETZEN EZ DUEN HITZARMEN-PROPOSAMEN BAT EGIN DU

Atzo, greba amaierako akordioa sinatu eta lau hilabete eta erdira, STEILASEk eta gainerako sindikatuek eskatuta, KRISTAU ESKOLAK soldata-taularik gabeko hitzarmen-proposamen bat ekarri zuen negoziazio-mahaira, eta dagoeneko aitortuta dauden eskubideetan atzerapausuak eta greba amaierako akordioan jasotakoa ez betetzeak proposatu zituen.

2024ko otsailaren 5ean grebarekin amaierako akordioa sinatu zenetik 9 negoziatio-mahai egin ditugu, eta Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek akordioaren edukiak hitzarmenera ez eramatearekin tematuta jarraitzen dute. Are gehiago, bere proposamenak dagoeneko aitortuta dauden eskubideak galtzea dakar. Hauek dira ez-betetze eta atzerapausu batzuk:

- Ez dago soldata-taularik, ezta nominak eguneratzeko datarik ere.
- Igoerak ez dira kontzeptu guztietan aplikatzen.
- Gela ixteagatiko kaleratzeen kasuan, kalte-ordainen eta antzinatasunaren aitortpenaren araubidea aldatzen du.
- Ez du jasotzen 23/24 ikasturterako lanaldi-murrizketa proportzionala.
- 25-26 ikasturtetik aurrerako irakastorduaren murrizketa ez da artikulatuan jasotzen
- Ekoizpenaren gorabeherengatiko kontratuen gehieneko iraupena aldatzen du, 6 hilabetetik 12 hilabetera.
- Kontratazioa ez dago birkokatzeke araudiaren mende.
- HH1eko langileen opor-egunak mugatzen ditu Aste Santuan eta Gabonetan.
- 60 urtetik aurrera irakastorduak % 25 murrizteko eskubidea ezabatzen du erretiro partzialerako eskubidea bertan behera geratuko balitz.
- Senideei medikuarengana laguntzeko 15 orduak ezabatzen ditu.

Gauzak horrela, 2024rako adostutako soldata-ordainketak erreklamatzeko eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusian gatazka kolektiborako demanda aurkezteko bide judizialari hasiera emateaz gain, alderdi sozialak akordioarekin bat egingo duen hitzarmen-proposamen bat bidaliko da datozen egunetan. Proposamena baloratzeko patronalak negoziatio-mahaira deitu ditugu ekainaren 27rako, baina ez zuten baieztatu bertaratuko zirenik.

STEILASetik ez dugu amore emango akordioa aplikatzeko eta hitzarmenean jaso dadin, atzerapausurik gabe eta adostutako baldintzetan. Borrokan jarraituko dugu!

KRISTAU ESKOLA HACE UNA PROPUESTA DE CONVENIO CON RETROCESOS RESPECTO AL ANTERIOR, SIN TABLAS SALARIALES Y QUE INCUMPLE EL ACUERDO FIN DE HUELGA.

Ayer, cuatro meses y medio más tarde de firmar el acuerdo fin de huelga y a petición de STEILAS y el resto de sindicatos, KRISTAU ESKOLA trajo una propuesta de convenio a la mesa de negociación sin tablas salariales y que propone retrocesos en derechos ya reconocidos e incumplimientos de lo recogido en acuerdo fin de huelga.

Hemos realizado 9 mesas de negociación desde que se firmara el acuerdo fin de huelga el pasado 5 de febrero de 2024 y las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA siguen empeñadas en no querer trasladar los contenidos del acuerdo al convenio. Es más, su propuesta supone la pérdida de derechos ya reconocidos. Estos son algunos de los incumplimiento y retrocesos:

- No existen tablas salariales ni fecha de actualización de las nóminas.
- Las subidas no se aplican en todos los conceptos.
- Modifica el régimen indemnizatorio y de reconocimiento de la antigüedad en caso de despido por cierre de aula.
- No recoge la reducción de jornada proporcional para el curso 23/24.
- No recoge la reducción de hora lectiva a partir del curso 25-26 en el articulado
- Modifica la duración máxima de los contratos por circunstancias de la producción de 6 a los 12 meses.
- No supedita la contratación al reglamento de recolocación.
- Limita los días de vacación del personal de HH1 en Semana Santa y Navidad.
- Elimina el derecho a la reducción de jornada lectiva del 25% a partir de los 60 años en caso de que decayera el derecho a jubilación parcial.
- Elimina las 15h para acompañar a familiares al médico.

Así las cosas, además de iniciar la vía judicial para reclamar los pagos salariales acordados para 2024 y presentar una demanda de conflicto colectivo ante el TSJPV, desde la parte social se va a enviar durante los próximos días una propuesta de convenio fiel al acuerdo y convocamos a las patronales a una mesa de negociación para valorarla el próximo 27 de junio, sin embargo, las patronales no confirmaron su asistencia para ese día.

Desde STEILAS no daremos ni un paso atrás para que el acuerdo se aplique y se recoja en el convenio sin ningún retroceso y en los términos pactados. ¡Seguiremos luchando para ello!

www.steilas.eus

Irakaskuntzan, STEILAS

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus